



Aplikazioak OpenApps-en argitaratzeko gida



Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 31

SARRERA

Aplikazioak OpenApps-en argitaratzea Europako zenbait ekimenen barruan sartzen da; ekimen horiek administrazio publikoek sortutako aplikazioen iturburu-kodea (eta hari lotutako gainerako informazioa) argitaratzeko eta partekatzeko egiten dira, hala nahi duenak berriz erabiltzeko modua izan dezan (beste administrazio publiko batzuek, enpresek edo pertsonak).

Praktikan, prozesu erraza da, baina edozein aplikazio argitaratzeko, komeni da jarraian azaltzen diren urratsak egitea:

- Iturburu-kodea eta hari lotutako dokumentazioa biltzea (gidaliburuak, gidak...)
- Aplikazioaren fitxa bat egitea. Betetzeko erraza eta berriz erabiltzeko interesa duena informatzera bideratua:
 - Gaia
 - Etiketak
 - Datuen iturria
 - Ingurune teknologikoa
 - Aplikazioaren mendekotasunak
 - Zer lizentziarekin argitaratu den
 - Argitaratze-/eguneratze-datak
 - Aplikazioaren deskribapena
 - Egilea eta kontaktu teknikoa
 - Datuak (iturburu-kodea)
 - Dokumentazio teknikoa (eskuliburuak, gidak...)
- Kodea berrikustea, dokumentu honetan *“Iturburu-kodea berrikusteko aholkuak”* izeneko atalean aipatzen diren jarraibideak betez.
- Jasotako fitxak eta iturburu-kodea www.euskadi.eus atariaren CMS-ra (edukien kudeatzailea) eramatea, zehazki, OpenData Euskadi atalera (<http://openapps.euskadi.eus> datuen katalogora), gida honetan jasotako urratsei jarraituz.

Gogoan izan!

Aplikazio baten garapenen bat egin aurretik edo dena delako kontratazio-espeditentea abian jarri aurretik, kontuan izan Eusko Jaurlaritzaren OpenApps biltegian argitaratu beharko dela.

ITURBURU-KODEA BERRIKUSTEKO AHOLKUAK

Aplikazioak OpenApps-en argitaratzea prozesu erraza da, baina zenbait urrats bete behar dira; horien artean, aplikazioaren iturburu-kodea eta eskura dagoen lotutako dokumentazioa berrikustea.

Elementu giltzarriak bilatzen dira iturburu-kodean, gerta litekeelako errorearen iturri izatea edo arrazoi bat zein bestea dela-eta (konfidentzialtasuna, segurtasuna...) argitaratu behar ez den informazioaren iturri izatea, eta ordezkatu edo ezabatu egin behar den erabakitzen da.

Identifikatutako bide nagusiak hauek dira:

Aurkitutako informazioa	Proposatutako irtenbidea
Izen eta helbide elektronikoko pertsonalak eskuliburuetan	Ezabatu
Pasahitzak ezarpeneko eskuliburuetan	Ezabatu
Datu-baseen izenak eta pasahitzak gidaliburuetan	Ezabatu
Barne-zerbitzuen izenak (ilarak, datu-baseen instantziak...)	Mantendu, datu asko baitira eta ez-kritikotzat hartzen baitira, EJI Eren barne-zerbitzuak kanpoko sarbidetik babestuta daude-eta.
<i>.Properties</i> fitxategien erabiltzaileak eta pasahitzak	Ezabatu
...	


ARGITARATZE-PROZESUA

0. urratsa: Edukien kudeatzailerera sartzea

Behin euskadi.eus edukien kudeatzailean logeatuta (identifikatuta), menu nagusian hiru aukera ditugula ikusiko dugu:

«Hasiera», «Edukiak» eta «Zerbitzuak»

Kasu honetan, eduki berri bat erantsi nahi dugu, eta, hortaz, “Edukiak” aukera hautatuko dugu, eta ondoren “Sortu” aukera.



Eduki baten sorrera-fluxuak lau urrats ditu:

1. Sortzeko moduak eta datu orokorrak
2. Katalogazioa
3. Bertsio idiomatikoak
4. Argitaratzea

Aurrerantzean, guk aurrez sortutako edozein fitxategi editatu ahal izango dugu, eta pantaila honetatik bertatik sartu ahal izango gara bertara. Pantailaren erdialdean, sortu ditugun edukiak ikusiko ditugu, eta *klik* eginda sartu ahal izango dugu haietara. Goialdeko bilatzailearen bidez ere irits gaitezke interesatzen zaigun edukietara.

1. urratsa: Sortzeko moduak eta datu orokorrak

Urrats honetan, edukia zein lekutan sortu nahi dugun hautatuko dugu. Kasu honetan, fitxa bat erantsi nahi dugu OpenApps-en, “Gardentasuna” izeneko atalaren barruan.


Sortu nahi dugun eduki mota ere hautatuko dugu urrats honetan: “[aplikazioen kode irekia](#)”.

Aurrera egin aurretik, “Edukiaren barne-izena” zehaztu behar dugu; gehienez ere, 30 karaktere izan behar ditu. Orain arte, irizpide hau erabili dugu barne-izena hautatzeko:

1. OpenApps proiektua aipatu
2. Argitaratu nahi den proiektua aipatu
3. Edukia edo informazioa kargatu dugun eguna

Hala, horrelako izenak sortzen dira: “*openapps_folletos_20171222*”

Parametro horiek hautatu ondoren, *klik* egin “Gorde eta jarraitu” aukeran.



2. urratsa: Katalogazioa

Orain, eduki berri hau zein gairen barruan katalogatu hautatu behar dugu. Horretarako, menu zabalgarrian ageri diren gaietatik (etiketak) interesgarrienak edo egokienak iruditzen zaizkigunak hautatuko ditugu.

Aldatzen: Turismo bulegoetarako pertsonalizatutako eskuorriak

1 Sartzeko moduak eta datu orokorrak | 2 Katalogazioa | 3 Bertako idaznerak | 4 Argitaratu

Tip Mostrar

Egitura (Open Datako gaiak) behar duzu 1.garren mailan.
Egitura (Gaiak / Azpigiak) behar duzu 2.garren mailan.

Gehitu katalogazio gehiago

Sartu bilatu nahi duzun terminoa Bilatu

- Egitura (Unidad administrativa responsable del contenido)
- Jasotzailea / Helburu den publikoa (Público destinatario del contenido)
- Open Datako gaiak
 - Zientzia eta teknologia
 - Merkataritza
 - Kultura eta aisialdia
 - Demografia
 - Kirola
 - Ekonomia
 - Hezkuntza
 - Lana
 - Energia
 - Ogasuna
 - Hezkuntza
- Administrazioaren egitura
- OROKORRA
- Partikularrak
- Eduki motak

Sartutako katalogazioak Erakutsi egiturak Erakutsi egiturak

[Egitura]: Eusko Jaurlaritza / Gobernantza Publikoa eta Autogobernua / Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza > Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta

Behin gaiak ongi hautatuta, "OK" mezua ageri da pantailaren erdiko bloke horian.

Aldatzen: Turismo bulegoetarako pertsonalizatutako eskuorriak

1 Sartzeko moduak eta datu orokorrak | 2 Katalogazioa | 3 Bertako idaznerak | 4 Argitaratu

Tip Mostrar

Egitura (Open Datako gaiak) behar duzu 1. garren mailan. **OK**
Egitura (Gaiak / Azpigiak) behar duzu 2. garren mailan. **OK**

Gehitu katalogazio gehiago

Sartu bilatu nahi duzun terminoa Bilatu

- Justizia
- Ingurumena
- Aisialdia eta Turismoa
 - Atsedean Lekuak
 - Auditorioak
 - Kirolak
 - Azokak eta merkatuak
 - Jai herrikoak
 - Leku bereziak
 - Natur-guneak eta hondartzak
 - Turismoa
 - Taberna, pub eta diskoteka guneak
 - Drosketa guneak
- Ogasuna
- Segurtasuna eta Herrizaingoa
- Administrazioaren egitura
- OROKORRA
- Partikularrak
- Eduki motak

Sartutako katalogazioak Erakutsi egiturak

[Egitura]: Eusko Jaurlaritza / Gobernantza Publikoa eta Autogobernua / Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza > Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta

Hobetzeko Zuzendaritza

- [Jasotzailea / Helburu den publikoa]: Enpresak
- [Jasotzailea / Helburu den publikoa]: Administrazioak
- [Open Datako gaiak]: Turismoa
- [Galak / Azpigiak]: Aisialdia eta Turismoa > Turismoa


► Localizador geográfico

Permite hacer búsquedas geográficas del contenido. No es una catalogación obligatoria.

Aurreko urratsean bezala, "Gorde eta jarraitu" hautatu behar da hurrengo pantailara joateko.

3. urratsa: Bertsio idiomatikoak

Orain, jendaurrean erakutsiko den edukia erantsiko dugun atalean sartuko gara. Ezer baino lehen, ikusi bertsio idiomatiko bakoitza erlantz banatan dagoela. Bi hizkuntzetako edukiak bete beharko ditugu, nahiz eta badiren bi bertsioetan errespetatzen diren edukiak (adibidez, iturburu-kodea eta datak).



Lehendabiziko urratsa argitaratu behar dugun aplikazioaren **titulua** idaztea da. Titulu adierazgarria jarri behar dugu, edonork jakin dezan zeri buruzkoa den. Gainera, interneteko bilatzaileek erakusten dizkiguten emaitzetan ongi “kokatzeko” moduko izenburu bat bilatu behar dugu (aplikazio jakin bat aurkitu nahi duen norbaitek erraz aurkitzeko moduan); adibidez, “*gelak erresebatzeko aplikazioa*”.

Ondoren, **iturburu-kodea** erantsi behar dugu “Datuen” atalean, fitxategia aplikazioak dioen bezala igota. Hona gure gomendioa, igotzeko eta jaisteko prozesua errazagoa izan dadin: karpeta guztiak konprimatzen dituen formatu batean igotzea; adibidez, ZIP fitxategi batean.

***Adi!:** ezinbestekoa da aplikazioek fitxategi bat kargatuta izatea atal honetan, bestela ez dira-eta agertuko OpenApps aplikazioen zerrenda publikoan.*


Euskaraz edo gaztelaniaz igotzen ditugun datuen beste bertsio idiomatikoan ere ikusiko ditugu.

“Xehetasunak” atalean, elementu hauek editatzeko aukera izango dugu:

- ✓ Etiketak, Datuen iturria, Aplikazioaren lizentzia, Sorrera-data eta Eguneratze-data.

Orain arte argitaratutako aplikazioek **EUPL lizentzia** dute, *European Union Public Licence*. Lizentzia hori erabiltzen jarraitzea gomendatzen dugu, Europar Batasunak babesten du eta.


Amaitzeko, OpenApps direktorioak “Eguneratze-dataren” arabera antolatzen ditu edukiak, eta aplikaziorik berrienak erakusten ditu lehendabizi. Horregatik, eremu horretan edukia zein egunetan kargatu den adieraztea gomendatzen dizugu, argitaratu den azken aplikazioa lehendabizi erakuts dezan direktorioak.



“**Deskribapena**” atala ezinbestekoa da aplikazioa argitaratu ahal izateko, eta aplikazioaren ezaugarriak eta deskribapena jasotzeko balia dezakegu.

Testu libreko eremu bat da, eta, gutxienez, alderdi hauek jasotzea gomendatzen dugu:

- Aplikazioaren ezaugarriak:
 - Aplikazio mota
 - Gaia
 - Ingurune teknologikoa
 - Datuen iturria
 - Beste programa batzuekiko mendekotasunak (adibidez: *login* sistema, erregistro-sistema, mezuak bidaltzeko sistema, eta abar)
- Aplikazioaren deskribapena:
 - Aplikazioaren barne-kodea
 - Bizpahiru lerroko azalpena, aplikazio honek zer egiten duen
 - Aplikazioaren egilea




Bi atal geratzen zaizkigu fitxa amaitzeko:

- ✓ Lotutako dokumentazioa eta kontaktuaren datuak

“**Lotutako dokumentazioa**” atalean, komeni da aplikazio hau berrerabili nahi duenarentzat lagungarri izan daitezkeen agiri guztiak eranstea: erabiltzailearen gidaliburuak, ezarpeneko gidaliburuak, eta abar.

Agiriak eransteko prozesua iturburu-kodea gehitzeko egin dugunaren antzekoa da.




“**Kontaktuak**” atalari dagokionez, hemen adieraziko dugu aplikazioan interesa duena norekin jar daitekeen harremanetan. Kontaktu generikoak jartzea gomendatzen da, eta ez pertsonalak (izan ere, baliteke gaur sail batean lanean ari direnak bihar beste batean aritzea).

Fitxa editatzea amaitzean, “Gorde eta jarraitu” botoia sakatuko dugu.

4. urratsa: Argitaratu

“Gorde eta jarraitu” botoia sakatu ondoren, behean ikusten dugun leihora iritsiko gara. Geratzen zaigun azken urratsa aplikazioa argitaratzea da. Bi bertsio idiomatikoak hautatu, eta “Argitaratu” botoia sakatzen dugu.



Fitxa berehala argitaratu dezakegu, edo noiz argitaratu nahi dugun programatu.




OpenApps Euskadi.eus-en bistaratzea

Amaitu dugu gure lana. Minutu gutxian, OpenApps-en ikusgai izango da gure aplikazioa (edukien kudeatzaileak edukia indexatzean):

<http://openapps.euskadi.eus>

Webgunerako nolako estilo orokorra hautatu den, hala ikusiko da fitxa euskadi.eus atarian.

MEZU, mezuak jasotzeko zerbitzua

Metadatuak 

Datuak deskargatu:

 [ZIP \(3.38 MB.\) - Mezu Android, iturburu-kodea](#)


 [ZIP \(4.18 MB.\) - Mezu iOS, iturburu kodea](#)


Erlazioa duten dokumentuak

 [Garapenaren eskuliburua \(.pdf, KB 988.72.\)](#)

 [Mugikorretarako jakinarazpenen zerbitzua \(.pdf, MB 2.48.\)](#)

Xehetasunak

 **Mota:** Aplikazioen kode irekia

 **Gaia:** Herri-administrazioa

 **Etiketak:** [MEZU app aplikazioak](#) [mugikorretako aplikazioak](#) [mugikorrak](#) [jakinarazpenak](#) [abisuak](#) [mezuak](#) [informazioa](#)

Datuen iturria:

[Eusko Jaurlaritza](#)

Lizentzia:



Sortze-data: 2016/05/11

Eguneratze-data: 2017/06/23

|| Deskribapena

Aplikazioaren deskribapena

Azalpena: Mezu erraz erabiltzeko moduko mezularitza-zerbitzu bat da. Euskal Administrazioaren zerbitzuen informazioa jasotzeko aukera ematen du, harpidetza bidez.

Android aplikazioa [Play Storen](#)

iOS aplikazioa [iTunesen](#)

|| Kontaktua

Arduraduna



Azkenik, gogorarazi dezagun argitaratutako aplikazioak ikusgai izango direla [CTT-ren \(Espainiako Gobernuaren Teknologiaren Transferentzia Zentroa\)](#) eta [Europar Batasunaren JoinUP](#) gordailuaren direktorioetan.